



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

EIDER ESNAOLA CARRERA IBARRAKO UDALEKO IDAZKARIA NAIZEN HONEK

ZIURTATZEN DUT:

2022ko azaroaren 17ko ez-ohiko Tokiko Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu zuen:

3. Hasieran onestea 1.1 Gurutzeaga Egikaritze Unitatea Urbanizatzeko Proiektua (2022WPOL0108)

Bozketa arrunta eginda, aho batez onartu da 2022ko azaroaren 17ko Alkate proposamena, honako hau dioena:

“Ikusi da 2022WPOL0108 espedientea, Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 1.1. GURUTZEAGA azpieroemuren urbanizazio proiektuari buruzkoa.

Ikusita Hirigintza Sailaren ALDEKO txostena 2022ko abuztuaren 8an aurkeztutako Urbanizazio Proiektuari, 2022ko urriaren 7an aurkeztutako zuzenketekin eta Kontuhartzailearen fiskalizazio txostena.

PROPOSATZEN DA:

LEHENENGOA.- Hasieran onestea 1.1.Gurutzeaga Egikaritze Unitatea Urbanizatzeko Proiektua eranskinean agertzen diren baldintzak betez. Onarturiko proiektua 2231 sarrera zenbakiarekin 2022ko abuztuaren 8an eta 2022ko urriaren 7an aurkeztutako agirietan jaso da.

BIGARRENGOA: - 1.1.Gurutzeaga azpieroemuko Egikaritze Unitatea Urbanizatzeko Proiektua jendaurrean jartzea hogeit egun baliodunetan, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Lurralde Historikoan gehien zabaltzen den egunkarian eta Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuta. Alegaziorik egon ezean Hiritartze proiektua behin betikotzat onartua emango da.

Eta honela jasota gera dadin eta bidezko diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut lehendadariak ikus-onetsita, Ibarra, bi mila eta hogeita biko azaroaren hogeita batean.

Igor Zapirain Lizarribar
Alkatea

Eider Esnaola Carrera
Idazkaria



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

ERANSKINA - BALDINTZAK

I.- Lanak egiten hasi aurretik:

I.1 Honako abala gordailutuko da:

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko denak, 5. artikuluan xedatzen duena kontuan hartuta, hondakinak kudeatzeko aurrekontuaren % 120eko fidantza jarri beharko dute, kasu honetan, 42.890,94 €. Lanak amaitutakoan, fidantza itzultzeko eskatu ahal izango dute.

Horretarako, hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta obran sortutako hondakinak egoki kudeatu direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztuko dituzte, 112/2012 Dekretuarekin bat etorritik.

Fidantza bat ezartzeko udaletxeko kontu korrontea hau da: KUTXABANK ES48 2095 5043 94 1063684178. Fidantzan espedientearen erreferentzia hau jarriko da: 2022WPOL0108.

Berme gisa onartzeko, abalak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- a) Abalak solidarioa izan behar du obligaziodun nagusiarekiko, eskusio-onurari berriaz uko eginez, eta Gordailuen Kutxa Orokorrak edo autonomia-erkidego edo toki-erakunde kontratatzaileetako establezimendu publiko baliokideek egindako lehen errekerimenduan ordaindu beharrekoa, eta
- b) Abalak iraupen mugagabea izango du, eta indarrean jarraituko du harik eta bere esku dagoen organoak berriaz ebatzen duen arte bermatutako betebeharra azkendu dela eta abala ezereztu dela; edozein kasutan, 112/2012 Dekretuak 5. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko da.

I.2.- Udalaritza idatziz jakinaraziko zaio hiritartze obran lantalde zuzendaria osatuko duten teknikari eskudunen izen-abizenak, helbideak, telefonoak eta lanbideak. Ibarako Udaleko udal arkitektoa arduratuko da urbanizazio-obretan udal-irizpideak ezartzeaz, gero haien harrera egiteko.

I.3 -Hiritartze obrak eta etxebizitzaren obrak batera egiten badira, hiritartze obra zuzendaritzaren eta 1.1. Gurutzeaga azpierzemuko etxebizitzaren obra zuzendaritzaren arteko koordinazio mahaia eratuko da hiritartze udal jaso arte. Koordinazio mahaia horren helburua izango da titular bakoitzari dagokion lana nola burutuko duen zehaztea beste alderdiak ere antolatze eta bakoitzak dagokion ardurak argitzea. Koordinazio mahairen erabakien berri udalari emango zaio.

I.4.- Behar diren baimen sektorialak edukiko dira.

I.5.- Sustatzaileek geoteknia-gaietan esperientzia duen enpresa bat izendatuko du, obra-zuzendaritzari laguntza geoteknikoa emateko urbanizazioko lurak sostengatzeko eta finkatzeko lanetan. Alde horretatik, laguntza horrek planifikatuko ditu lan horiek, eta egin beharreko lur-mugimenduak eta erabili beharreko lur-mota, eta sostengatze-motak eta abar zehaztuko ditu.

Obra egin bitartean:

II.1.- Antolamenduari dagokionez

- Obrak egiten diren bitartean inguruko etxebizitza eta aparkalekuetan ahal den afekzio gutxien sortzeko neurriak hartuko dira.
- Gauzatze-lanetan zehar 1.1 Gurutzeaga azpierzemuren ondare-ebaluazioari buruzko txostenean adierazitakoaren arabera arkeologia-zantzuren bat dakarren aurkikuntzaren bat gertatzen bada, alde horretako lanak eten egingo dira prebentzioz, eta berehala

jakinaraziko zaito Ibarra udalari.

II.2.- Zoladurari dagokionez

- Oinezkoentzako pasabideak Estatuko Araudian adierazitako irizpideekin bat etorritik seinalatzeko behar dira [uztailaren 23ko TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatuera sartzeko eta haiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarritzko baldintzei buruzko dokumentu teknikoa garatzen duena (2021/08/6ko BOE) eta indarrean dagoen araudi autonomikoan aplikatutako irizpide batzuk aldatzen dituen]
- Espaloi-guneetan jarri beharreko zoladurak udaleko zerbitzu teknikoen oniritzia beharko du jarri aurretik.

II.3 Zerbitzuei dagokienez

- Instalatu beharreko transformazio-zentro berriak lurpekoa izan behar du, gainazal-akaberarekin berdindua, aireztapen-saretak barne.
- Hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak egiterakoan, Gipuzkoako Urak Zerbitzuen irizpideak bete beharko dira beti, eta kalitatea kontrolatzeko probak egingo dira sare osoan, hala nola barne-presioaren proba, estankotasunarena, hodian garbiketa eta desinfekzioa eta kamera bidezko ikuskapena
- Zerbitzuen azpiegituretan, enpresa hornitzaileen arauak bete beharko dira.
- Ziurtatu egin beharko da azpiegituretan, obra zibilik edo transformazio-zentrorik ez dela kokatuko edo pasako zuhaitzen azpian

III.- Harrera-baldintzak

- Urbanizazio-obra harrera egiteko eskaerari erantsita aurkeztu beharreko dokumentazioa,
 - a) Aldaketaren bat egin baldin bada, obra behin betiko nola geratu den adierazten duten plano eta agiriak.
 - b) Obren zuzendariaren ziurtagiria, obrak onetsitakoaren eta bereziki ezarritako baldintzen arabera burutu direla egiaztatzeko.
 - c) Obra-amaierako ziurtagiria, teknikari eskudunak sinaturik eta elkargo ofizialak oniritzia emanik.
- Udalak obren errezepzioa burutzeko akta sinatzen den unean jasoko ditu.”



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022I1200008-Gurutzeaga/Gurutzeaga (IBARRAKO UDALA)